

**MISTIKA XX. MENDEKO FILOSOFIAN.  
LANERAKO ZENBAIT OHAR**

Karmeldarrak Teresa Avilakoaren V. Mendeurrena ospatzen ari dira, haren jaiotzatik bostehun urte betetzean (1515-2015). Karmeldarren historia hau espiritualitate mistikoari hagitz loturiko iragana da, bi fundatzaileak mistikari izanik, munduko erlijioen historian mistikari handienetakoak gertatu direlako.

Gizarte sekulartuetan, oro har eta gaur egun, Mistikak ez du izaten ageriko presentziarik apenas. Hori horrela, neure buruari galdetu diot iragan berri dugun XX. mendean nola izan den hori Mendebaldeko kultur munduan, adibidez Psikologian edo Filosofian, eta ezusteko txiki bat izan dut aurrean, uste nuena baino aztarna estimagarriagoak aurkitu ditut eta. Hortik datoz nire ohar xume hauek.

XX. mendeko Filosofiak traszendentzia eta jainkotasuna nola bilatu eta/edo aurkitu dituen eman nahiko nuke orrialde labur hauetan, zenbait filosofoen lana gogoratuta. Bide batez, nahi duenarentzat baliagarri suerta daitekeen bibliografia aurkezten saiatuko naiz, alor honetan aurrera egin nahi duenak baliabide hori (hautatu eta laburra) eskueran izan dezan.

Mistika, diot, berau ikusi izan baita espiritualtasunaren gailur bezala, baina hemen Filosofiaren hastapenetatik lihoakeen hortik gorako tarte osoa ere hartuko dut, gaiak horretarako bide ematen didanetan. Filosofoak, zinez eta oro har, ez dira izan Mistikaren teorikari, edo bizitzaile; baina esperientzia erlijiosoa aintzakotzat hartu eta batzuetan beren pentsamendu-

sisteman bidezko ikusi dute espiritualtasuna eta Mistikarena ere begiratzea.

Gizakiak izan dezakeen jainkozko izaeraz eta bizi dezakeen edo inoiz bizi izan duen *esperientzia erlijiosoaz* hitz egin dute erlijio eta espiritualitate ezberdinek, eta XX. mendean, *homo religiosus* delakoaren bila dabiltzala, historia eta fenomenologia erlijiozko bizipen horretaz mintzatu dira.

Aurreko mendeetako Filosofian, jainkoak, espiritualtasunak edo mistikak izan zuten edo ez zuten lekuaz deus esan gabe (Platonengandik hasita, esaterako), lerro hauek idaztean, nahitaezkoa da behintzat aurrena pasaerako oharren bat edo beste egitea.

Pentsamendu filosofikoaren historian hiruzpalau jarrera nagusi nabarmendu izan dira, errealitatearen eta gizakiaren nondik norako azkenak arrazoitu edo/eta hautatzean: 1) Nolabaiteko azken “jainko” bateraino garamatzana, 2) Ez(in) jakinaren jarrera agnostikora doana, 3) Bestelakorik gabe, gizaeraren absurdoa baieztatzen duena, eta 4) Ateismoa, aitortua soilik, edo ekintzailea. XX. mendeak ikusmolde ezberdin hauek guztiak ezagutu ditu.

Bestalde, esan beharra dago erlijioen eta erlijiotasunaren gaia XX. mendean inoiz baino zientzia gehiagotan hartu dela aintzakotzat, beroriek ikerlan handiak egin dituztela eta jakitearen aldetik jakite osoago eta hobeak ditugula gaur aurreko mendeetan baino. Ondorioz, zientzia bakoitzak beretik emanda ere, Antropologia, Soziologia, Historia, Psikologia, Filosofia, Fenomenologia edo Teologia berriek diziplinartekotasun zabalagoa eskatzen dute gaur egun erlijio-erakundeez edo talde nahiz pertsonen bizipen erlijioso, agnostiko edo atoei buruz funtsez hitz egiteko.

Jakitun eta pentsalariek ere beren bizitza izan ohi dute, eta bizitzak dakarren bilaketak, nola ez, bihurgune eta iraultetak ditu norbanako bakoitzaren ibileran. XX. mendeak horren le-

kuko asko du. Gure artean ezaguna dugun A. Huxley-k (1894-1963) 1932an *Brave New World* (Bai mundu berria) idatzi zuen, baina urte batzuk geroago baita *The Perennial Philosophy* ere (Filosofia betirauna, 1945), eleberrietatik erlijioen historia eta gogoetara jauzi egiten zuela.

Jarrera ezberdin horiek, gainera, biziberrituta ageri dira XX. mendean areagotu den gizartearen sekularitze bizkorrean: tradizio edo bortxaz ezarri izan diren erlijiotasunek indarra galdu dute, edo galtzen ari dira, eta askatasun osoan hartu, utzi, bizi edo baztertu nahiago diren erlijiotasuna, edo halakorik eza, hobesten dira orain.

XX. mendeko Filosofiak ere, bere baitako tradizio anitzaren herentziak jasota, egungo gizartearekin batera gogoeta anitz zabalean jardun du bideak urratzen. Jakintza akademikoak eta Unibertsitateetako ikerlanek ere beren ahal, ahuldade, irekitasun eta itxiturak izan dituzte eremu honetan<sup>1</sup>.

Lehen abiapuntutik gizatasunaren *izan-zentzuaz* ari den edozein Filosofia ireki daiteke azken galdera-erantzunetara, errealitatearen aurpegi “sakratu” edo jainkotiarrera; baina gutxieneko jarrera ireki hori abiapuntu ez denean, ahalegin filosofikoa motz bilaka daiteke. Hala ere, erlijio-tradizioren bat ondoan denean posibleago da Filosofiatik bertatik (Teologiara pasatu gabe, alegia) izan-zentzuaren gogoetari heltzea<sup>2</sup>.

<sup>1</sup> Poulat, E., 1999, *L'Université devant la Mystique*. Paris: Salvator. XX. mendeko ikerkuntza filosofikoan *mistikari* eskaini zaion arretaz eta termino honek izan dituen aldaerez, F. Worms-en lana: <http://theoremes.revues.org/76>. Dioenez, bilaketa filosofikoan Mistika gertakari handia izango litzaiteke: «La mystique ne s'atteste pas par un contenu dogmatique, une vérité contemplée, mais par un effet pratique, un effet de retour en quelque sorte sur notre existence, et cet effet est un effet de *délivrance*, en tout cas un effet de rupture *dans l'immanence même de notre vie*».

<sup>2</sup> Grondin, J., 2009, *La philosophie de la religion*. Paris: puf. (Gaztelaniaz: Grondin, J., 2010, *La filosofía de la religión*. Barcelona: Herder). 106 edo 138. Gilson, E., 2013, *Dieu et la Philosophie*. Fontgombault: Éditions Petrus a Stella.

XX. eneko Mendebaldeko Filosofiari ez zaio lausotu erabat erlijiotasunerako begiratua. Filosofiak hitz egin izan du Jainkoaz eta jainkozko espiritualtasunaz, azken finean Mistika posible batez. Hainbat Eskola filosofikok aztertu ditu bi hipotesi horiek (Jainkoarena eta Mistikarena, alegia), betiere emaitza ezberdin eta kontrajarriekin<sup>3</sup>. Izan ere, sinesmena ez da Filosofia, eta, arrazoi ezberdinengatik, zaila da Filosofia hutsetik hasita fedea, espiritualtasuna nahiz Mistikaz<sup>4</sup> edota ateismoaz jardutea<sup>5</sup>. Horren lekuko bat edo beste ekarriko dut hona.

Iragan mendeko erlijiotasunaz ari diren bi Filosofia eta izen kotrajarrirekin zabal dezakegu historia: F. **Nietzsche** (1844-1900) eta W. James-ekin. Nietzsche-k hasieratik tratatu zuen Mistikarako aukera, "Jainkoaren heriotza" baieztatu eta aldarrikatzean; hortaz, ezin da egon mistika erlijiosorik, eta Supergizonarena mundu honetakoa ez bada. Hala ere, ez da falta izan, Nietzsche-ren pentsamendua al-Arabi-ren sufismo mistikoarekin alderatu duenik (noski, segun nolako irakurrera egiten zaion al-Arabi)<sup>6</sup>.

<sup>3</sup> Gardet, L., 1972, *Études de philosophie et de mystique comparées*. Paris: J. Vrin. 260.

<sup>4</sup> Gellman, J. 2014, s. v. "Misticism", in: *Stanford Encyclopedia of Philosophy*. On line. Stace, W., 1960, *Mysticism and Philosophy*. <http://wudhi.com/mysticism/ws/wts-mp%20-%20index.htm>.

<sup>5</sup> Filosofia kristautik egindako azalpenak: Gilson, E., *L'athéisme difficile*. Paris: Vrin. Lubac, H. de, 1944, *Le Drame de l'humanisme athée*. Paris: Spes. Ateismoaren historiatik : Minois, G., *Histoire de l'athéisme*. Paris: Fayard. 492-537.

<sup>6</sup> Behin eta berrero agertuko da ideia hori Nietzsche-ren idazlanetan: Nietzsche, F., 1882, *Die fröhliche Wissenschaft* (La gaya ciencia = Zientzia alai), 108. saila («Borroka berriak»), 125. saila («Zoroa»), eta 343. saila («Gure baretasun alaian gertatzen dena»). ID., 1992, *Honela mintzatu zen Zaratrusta*. Bilbo: Klasikoak. (Jatorrizkoa : ID., 1883-1885, *Also sprach Zarathustra. Ein Buch für Alle und Keinen*). Joris, M., 2007, "Nietzsche et le soufisme: concordances spirituelles", *Philosophique*, 10 | 2007, 123-134. Ik. <http://philosophique.revues.org/123?lang=en>.

William **James** (1842-1910), psikologo eta filosofo amerikarra, oso bestelakoa gertatu zen Mistikaren bilaketa filosofikoan. Erlijiotasunari buruzko haren liburu nagusia (*The Varieties of Religious Experience*) Mistikak lekurik behinena hartu zuen, hain zuzen argitalpeneko azpititulua –hain orokorra– “*A Study in Human Nature*” izan arren<sup>7</sup>. Interneten dago gaztelaniazko itzulpena<sup>8</sup>. Erljioen esperientzia erlijioso nagusienetatik hasita aztertu zuen Mistikaren hau James-ek (*Conferencias XVI eta XVII*).

Mendebaldeko gogoeta honetan bi tradizio erlijioso handi nabarmendu zaizkigu: judutasuna eta kristautasuna, biak bi-ziak, biak ekarri handikoak, XX. mendean ere. Biak elkarren ondoan, biak batzuetan elkarrekin pentsatzen ere, eta inoiz edo beste, bien arteko mugalde bakarrean Filosofia egiten, tradizio erlijiosotik edo gogoeta sekularretik zetozkien galdera eta zalantzei arrazoimenaz baliaturik erantzun nahirik.

Mistika juduak mendetako iturburu emankorrak izan ditu: Henok-en idazkiak<sup>9</sup>, Kabala-ren tradizio anitza eta mugimendu hasiditarra izan dira bizipen mistikoa berezikiago aurkeztu dutenak. Judutasunaren tradizio mistikoa birbalioetsi duen jakitun handia G. **Scholem** (1897-1982) izan da; Kabalaren aztertzailea<sup>10</sup>, ez beronen esanahi historiko-esoterikoaz ari dela,

<sup>7</sup> James, W., 1994<sup>2</sup>, *Las variedades de la experiencia religiosa. Estudio de la naturaleza humana*. Barcelona: Ediciones Península. On line: <http://csp.org/experience/james-varieties/james-varieties16.html>. (Jatorrizkoa: ID., 1901-1902, *The Varieties of Religious Experience. A Study in Human Nature*. New York: Longmans, Green and Co. Nef, F., “La mystique a-t-elle une valeur philosophique ? William James et Bertrand Russell”, in: <http://theoremes.revues.org/73?lang=en>. James-en obra nagusi bat euskaraz: *Pragmatismoa*. Bilbo: Klasikoak.

<sup>8</sup> <https://holismoplanetario.files.wordpress.com/2015/06/james-william-las-variedades-de-la-experiencia-religiosa.pdf> . Mistikaz : 179-203.

<sup>9</sup> [http://es.wikipedia.org/wiki/Libro\\_de\\_Enoc](http://es.wikipedia.org/wiki/Libro_de_Enoc) .

<sup>10</sup> Scholem, G., 1998 [1974], *La kabbale. Une introduction. Origines, thèmes et biographies*. Paris: Gallimard. ID., 2006, *Las grandes tendencias de la mística judía*. Madrid: Ediciones Siruela. ID., 2006, *Hay un misterio en el*

baizik eta izan duen balio mistiko orokorra bere sakonean argitu nahi izan duena. Honen ekarpen handien artean jarri behar da mistika juduaren fenomenologiak eskaini duena; XX. mendeko Filosofia juduak aitorturik du Scholem-en ikerlan handiaren kalitatea. Scholem izan da XX. mendean mistika juduaren historialari, teorikari eta maisu berritzailea<sup>11</sup>.

Judu izanik eta/edo judutasunaren tradizioaren barnean eta bertatik ekinez ere Filosofia egin duen zenbait aipatu beharko da hemen. Guztion aurretik, izendatuta utzi behar da XX. mendean hainbat filosofoen irakasle izandako **E. Husserl** (1859-1938). Jatorriz judua, konfesioz lutertarra, Fenomenologiaren maisu handia izan da bera. Esan beharra dago, Husserl-ek ez zuela erabili bere metodoa erlijioaz jarduteko; hala ere, kezka teorikoen artean izan zuen berau ere<sup>12</sup>.

Husserl-en Filosofian, nahikoa sarritan gertatutakoaren antzera<sup>13</sup>, abiarazitako Fenomenologia Eskola horren barnean, zenbait ikaslek, metodoz eta gogoz heldu zien erlijio eta Mistikarenari: A. Reinach (1883-1917)<sup>14</sup>, Scheler, edo Stein horretan saiatuenak. Gainera, Fenomenologian edo inguruetan ibilitako batzuk aipatzekoak ditugu hemen: M. Buber, E. Levinas edo H. Arendt, adibidez.

---

*mundo. Tradición y secularización*. Madrid: Editorial Trotta. ID., 20083, *Conceptos básicos de judaísmo: Dios, Creación, Revelación, Tradición, Salvación*. Madrid: Editorial Trotta. ID., 2006, *Las grandes tendencias de la mística judía*. Madrid: Ediciones Siruela. Robberechts, E., *Les Hassidim*. Tournai: Éditions Brepols.

<sup>11</sup> Ik. Magid, S. 2013, in: <http://plato.stanford.edu/entries/scholem/>.

<sup>12</sup> Husserl, E., 1979, *Meditaciones Cartesianas*. Madrid Ediciones Paulinas. Housset, E., 2010, *Husserl et l'idée de Dieu*. Paris: Les Éditions du Cerf. Ayala, J. M., 1991, "Fenomenología y experiencia religiosa". On line: [http://www.uned.es/dpto\\_fim/invfen/InvFen1/18ayala.htm](http://www.uned.es/dpto_fim/invfen/InvFen1/18ayala.htm).

<sup>13</sup> Ferrater Mora, J., 2009, *Diccionario de Filosofía*. Barcelona: Ariel. (s. v. "Mística").

<sup>14</sup> A. Reinach-i *Erljio-filosofiaz obarrak* obra zor zaio. Stagi, P., 2015, *La filosofia della religione di Adolf Reinach*. Roma: Stamen University Press.

E. **Stein** (1891-1942) aldizkarian aurkeztuta dagonez ez dut hemen deus errepikatu beharrik<sup>15</sup>. Gainerakoen artean, Max **Scheler**-en (1874-1928) obra da Fenomenologian erlijioaz ekarpenik aberatsena egin zuena, eta Filosofiatik trazendentziaz zabalki gogoeta aurkeztutakoa. Erlijiotasunaren filosofia berorren pentsamenduan azken muina da, pertsonaren baitako espiritualtasunaren azken *balioa*, metafisikarako ataria eta Absolutuagana doan bidezidorra. Balioen Filosofia hau Mistikaraino irekita bizi da<sup>16</sup>.

Holokaustoa abiatu zela, beste emakume bat dugu aipatzekoa, Simone **Weil** (1909-1943), jatorriz judua eta filosofoa, Frantziatik at salbatu zena. Honek, bere pentsamenduan ez ezik ibilbide pertsonalean, espiritualtasuna bizirik erakutsi zuen, nahiz eta, hain zuzen, espero zitekeenaren kontra, tradizio juduari sorbalda eman zion, “deserria” hautatu eta kristautasunaren ataurreraino heldu zen<sup>17</sup>.

Hannah **Arendt** (1906-1975), Holokausto eta Israel Estatua-  
ren ondoko filosofia politiko-erlijioso lantzen saiatu zen, gaiz-

---

<sup>15</sup> Stein, E., 2002-2004, *Obras completas*. Vitoria: Ed. Monte Carmelo. ID., 1994 [1936], *Ser finito y ser eterno. Ensayo de la ascensión al sentido del ser*. México: fce. Ik. aldizkari honetan Stein-i buruzko lanak: *Karmel*. 2008/3, 320. (A. González. eta L. Villar-en lanak: *Karmel*. 2008/3, 14-30; 2008/4, 38-48, bereziki 47), eta ondoko aleak. Intxausti, J., 2008, “Edith Stein (1891-1942), XX. mendeko pentsamendu eta zorigaiztoan”, in: *Karmel*. 2008-2, 8-29.

<sup>16</sup> Scheler, M., 2007, *De lo eterno en el hombre*. Madrid: Ed. Encuentro (Jatorrizkoa: *Vom Ewigen im Menschen. Religiöse Erneuerung*, 1921). ID., 1990, *El puesto del hombre en el cosmos*. Buenos Aire: Ed. Losada. ID., 2001, *Muerte y supervivencia*. Madrid: Ed. Encuentro. Ik. <https://maxscheler2.wordpress.com/> edo <http://plato.stanford.edu/entries/scheler/>.

<sup>17</sup> Weil, S., *Attente de Dieu*. Paris: Fayard. (Itzulpena: 2009<sup>5</sup>, *A la espera de Dios*. Madrid: Trotta). Otón, J., *El camino espiritual de Simone Weil*. Madrid: San Pablo. Rabedon, Ch. ; Sigaux, J.-L., *Simone Weil. Mystique et rebelle*. Paris: Entrelacs. Vetö, M., 1997, *La métaphysique religieuse de Simon Weil*. Paris: Harmattan.

kiaren misterioa eta herri juduaren eta gizadiaren etorkizunaz mintzatzean<sup>18</sup>.

Beti eraiki beharreko *zentsua* egon da XX. mendeko giza-kiaren bizitzako joko osoan, eta are gehiago Holokaustoaren eskarmentu izugarriaren ondoren (Primo Levi idazle italiarra, D. Bonhoeffer, teologo protestante alemaniarra...).

Badakigu Filosofia garaikidean ororen zentzugabetasuna ere baieztatua izan dela (Sartre aipa daiteke). Kasu honetan argigarria da Nietzsche-ren ondoren Husserl nahiz Sartre-ganaino luzatu zen bidea, Sartre-ren kasuan azalpen akademikoetatik aitorten pertsonalagoetara heltzen zela (Levy-k jasotako azken aldiko elkarrizketa, berehala hain eztabaidatua, tartean zela)<sup>19</sup>.

Jakina denez, Sartre-ren iturri estimatuena gertatu zen **M. Heidegger** (1889-1976), eta XX. mendean oihartzunik handienetakoa izan duen filosofoa dugu. Itxuraz behintzat, hasieran ateotzat ikusi izan zenak laster jainkotasunari ere atea ireki zion, azken batean bizipen mistikoaz ere interesatzen zelarik (San Pauloren esperientziatz). Heidegger-ek garaiz heldu zion biziera erlijiosoaren azterketari (1919-1921), eta irakurtzekoa da Humanismoari buruzko gutuna (1946)<sup>20</sup>.

<sup>18</sup> Gogora dezagun beraren doktoretza-tesia (1929): Arendt, H., 2001, *El concepto del amor en San Agustín: Ensayo de una interpretación filosófica*. Madrid, Encuentro. Leibovici, M., 2005, *Hannah Arendt y la tradición judía. El judaísmo a prueba de la secularización*. México unam. (Jatorrizkoa: ID., 2004, *Hannah Arendt et la tradition juive*. Genève: Labor et Fides).

<sup>19</sup> *Sartre, J. P., 1946, L'existentialisme est un humanisme. Paris: Nagel.*  
<http://www.danielmartin.eu/Textes/Existentialisme.htm>. *Sartre, P. ; Levy, B., 1980, "L'Espoir maintenant", in: Le Nouvel Observateur. (1980ko martxoaren 10, 17 eta 24ko zenbakietan). Orain : ID., 1991, L'Espoir maintenant. Les entretiens de 1980. Paris: Verdier.*

<sup>20</sup> *Heidegger, M., 1946, Phänomenologie von religiösen Lebens (Bizitza erlijiosoaren fenomenologia). O'Leary, J. S. (ed.), 1980, Heidegger et la question de Dieu. Paris: Bernard Grasset. (Heidegger, eta hainbat ikertzaileren lanak).*



M. **Buber** (1878-1965)<sup>21</sup>, hau ere judua eta filosofoa, erlijioaren filosofotzat hartu izan da, eta politika eta espiritualtasunaren artean *Paths in Utopia* (Utopiaren bideak) eman zizun (1946); politikan, Israel/Palestinarako Estatu binazionala proposatzen zuela; pentsatzaile moduan obra zabala izan du Buber-ek. Mistika judutarretik hasi eta gizarte filosofia, ikerlan biblikoak, fenomenologia erlijiosoak, antropologia filosofikoa, hezkuntza, politika eta arteraino doana izan da. Bibliaren itzultzaile eta ipuin hasiditarren hedatzailea da Buber.

Horiekin batera, E. **Levinas** judu lituniarrak (1906-1995), azken muturreraino eraman nahi izan zuen *ontologiaren azterketa*, izakitik *Izatera irekitzen zela*, eta *ondoren Izatetik harago joaten zela*” (Ferrater Mora). Hortik azken jautzia Izaki Absolutura eta berorrekiko Mistikara eman zitekeen<sup>22</sup>.

XX. mendeko Filosofia alemaniarretik hona ekarri beharra dago **Karl Jaspers** (1883-1969), bere obra erraldoian Mistikari ere begiratu diolako, munduaren kosmo-ikusera psikologikoan aitortu dion betekizunagatik, eta Filosofiaren historia-tik alor honi eman dion begiratuagatik<sup>23</sup>.

Jaiotzez judutasunetik zetorren H. **Bergson** (1859-1941) filosofoa, beraren pentsamendu librean, judutasun-kristautasun mugaldean ikus dezakegu. Arrakasta sozial handian eta egokiera eroso edo inguruabar moldakaitzetan eraman behar

<sup>21</sup> Buber, M., 2014 [1989], *El camino del hombre, conforme a las enseñanzas del jsidismo*. Palma: J. J. de Olañeta. ID., 1970, *Eclipse de Dios*. Buenos Aires: Nueva Visión. ID, 1973, *Qué es el hombre?* México: fce. ID., 1977, *Yo y Tú*. Buenos Aires: Nueva Visión. [http://eskenazi.net16.net/buber\\_yotu.html](http://eskenazi.net16.net/buber_yotu.html) .

<sup>22</sup> Levinas, E., 1993, *Dieu, la mort et le temps*. Paris: Grasset. ID., 1986<sup>2</sup>, *De Dieu qui vient à l'idée*. Paris: Vrin. ID., 1971 [1961], *Totalité et infini. Essai sur l'extériorité*. Paris: Libr. Générale Française. Lévy, B., 2009, *Lévinas: Dieu et la philosophie*. Lagrasse: Verdier. Vázquez Moro, U., 1982, *El discurso sobre Dios en la obra de E. Levinas*. Madrid: Universidad Pontificia de Comillas.

<sup>23</sup> Jaspers, K., 1967 [1960], *Psicología de las concepciones del mundo*. Madrid. Gredos. 89-105, 566-593 (« La polaridad de lo místico: la vía de la mística y la vía de la idea »).

izan zituen azkeneko bere galdera eta zalantza erlijiosoak (1939-1941).

Mistika, erdigune bizia da Bergsonen liburu nagusian, *Les deux sources de la morale et de la religion* liburuan (1932). Bergson-ek ez zuen egin bere gogoeta judutasunaren tradizio-tik, nahiz eta bere burua judu sentitu zuen; bestalde, azken egunetan katolikotasunera hurbildu zen; baina, bere herri era-soarekin fidel izan nahita, hurrengo urrats konfesionala eman gabe, urte haietan (1940 inguruan), nazismoaren arrisku latza inguruan zuela<sup>24</sup>. Bergson-enean bizipen erlijioa eta Mistika erdigune ardatza dira, erlijioa ulertzeko eta Filosofiari bere gailurra emateko<sup>25</sup>.

L. **Wittgenstein** (1889-1951) filosofo austriarrak ez zuen erabat albora utzi Mistika bere *Tractatus* famatuan: “Mundua *nolakoa* den ez da mistikoa, baizik eta izan *badela*, hori da mistikoa. Mundua oro-mugatutzat ikustea da berori *sub specie aeterni* ikustea. Mundu erabat mugatuaren sentipena da mistikoa. Esanezina, izan ziurki dela. Ageria da, mistikoa da hain zuzen hori”. Wittgenstein gazterik pasatu zen fededun izatetik ez-sinestun izatera; hala ere, matematika, hizkeraren logika, zientziak eta balioak begiratuta (etiko, estetiko, erlijiosoak),

---

<sup>24</sup> Bergson, H., 2008 [1932], *Les deux sources de la morale et de la religion*. Paris: puf. (Itzulpenak : ID., 1996, *Las dos fuentes de la moral y de la religión*. Madrid: Tecnos. ID., 2002, *Morala eta erlijioaren bi iturriak*. Bilbo: Klasikoak. Mekanika eta Mistikari buruz du azken kapitulua, ik. on line: [http://www.ac-grenoble.fr/PhiloSophie/file/bergson\\_deux\\_sources.pdf](http://www.ac-grenoble.fr/PhiloSophie/file/bergson_deux_sources.pdf) (302-361. or. eta preseskiago 353-361. or.). ID., 2008 [1941], *L'évolution créatrice*. Paris : puf. (Jainkoaren gaiaz testua eta eztabaida kritikoa : 268-271, 299-301, 323 ; 620-633). ID., 2008, *L'énergie spirituelle*. Paris : Puf. 27-28, 57-60. Waterlot, G., 2008, *Bergson et la religion*. Paris: puf. 213-277 (“Mysticisme, connaissance de Dieu et émotion créatrice”). Marie Cariou, C., 1976. *Bergson et le fait mystique*. Paris: Aubier-Montaigne. [http://fr.wikipedia.org/wiki/Les\\_Deux\\_Sources\\_de\\_la\\_morale\\_et\\_de\\_la\\_religion](http://fr.wikipedia.org/wiki/Les_Deux_Sources_de_la_morale_et_de_la_religion) .

<sup>25</sup> Begira zein den *Les deux sources* liburuko gogoeta-eskema: 1. L'obligation morale. 2. La Religion statique. 3. La Religion dynamique. 4. Remarques finales. Mécanique et mystique.

eta horien izaera bilatzean, trszendentziari guztien oinarri-balioa aitortu zion<sup>26</sup>. Bilaketa horretan W. James aintzakotzat hartu zuen. Nabariki baina isilean Filosofia eta bizitza pertsonala elkarrekin hagitz loturik joan ziren Wittgenstein-en bizialdian.

Mende-hasierako krisi modernista urrun samar geratu zenean, Frantziako Kolegioan Loisy-ren lekua hartu zuen J. **Baruzi** (1881-1953) gogoratu beharra dago hona iristean. Filosofo eta erlijioen historialari gisa aurkeztu izan da, eta Donibane Gurutzeakoaren mistikaz idatzi zuen tesi gotorra (1924)<sup>27</sup>.

M. **Blondel** (1861-1949) katolikoa zen, Eskolastikatik kanpo, Modernismoaren aurkako garai zailetan (1907-1914), zentzuaren giza ataza bazterrezinari bide berriak urratu nahi izan zizkiona; juxtu, Blondelen obra nagusian azken kapitulua horretaz ari zaigu<sup>28</sup>. Hain zuzen, katolikoa zelako nahikoa lan izan zuen Blondel-ek “Modernismoaren” ekaitzaren zurrumbilo larritik sano irteten<sup>29</sup>.

Katolikotasunean barrurago egonda, ez da harritzekoa Jainkoa eta Harekiko harreman mistikoa aintzakotzat hartu duen filosofoak aurkitzea. Kasuren bat edo beste ekarriko dut hona. G. **Marcel**-ek (1889-1973) “existentzialismo kristau” gisa

<sup>26</sup> Wittgenstein, L., *Tractatus logico-philosophicus*. Madrid: Alianza Editorial. 131 (oharrak: 6. 44; 6. 45; 6.522). Cabrera, I., “La religiosidad de Wittgenstein”, in: *Diánoia*.53, 2008. [http://www.scielo.org.mx/scielo.php?script=sci\\_arttext&pid=S0185-24502008000200005](http://www.scielo.org.mx/scielo.php?script=sci_arttext&pid=S0185-24502008000200005) .

<sup>27</sup> Baruzi, J., 1924, *Saint Jean de la Croix et le problème de l'expérience mystique*. Paris, Alcan. (Gaztelaniaz: *S. Juan de la Cruz y el problema de la experiencia mística*. Valladolid: Junta de Castilla y León). ID., 1951, *Création religieuse et pensée contemplative*. Paris: Aubier. ID., 1985, *L'Intelligence mystique*. Paris: Berg International. (Testu antologia).

<sup>28</sup> Blondel, M., 1993 [1893], *L'action*. Paris : puf. 389-465. Ik. Gaballieri, E.; Cointet, P., 2007, *Blondel et la Philosophie française*. Lyon: Parole et Silence. 125-140, 159-182 (“Liberté et transcendance”)

<sup>29</sup> Poulat, E., 1979<sup>2</sup>, *Histoire, dogme et critique dans la crise moderniste*. Tournai: Casterman.273-275, 300-303, 513-609, 615-618.

aurkeztu izan zaion bere lanari, nahiago izan du “existentzialismo” terminoa kendu eta “pentsamendu kristaua” bezala aurkeztu. Filosofo honen arabera, gizakia bidean da, “hautsiririk” dagoen mundu honetatik misterio bat eskaintzen dion mundura, hau da, betikotasunerako sarbide den eskualde sakonera; saiakera, antzertia eta gogoeta filosofikoan egin du lan<sup>30</sup>.

Maritain-darrak eskola eta talde izan ziren Frantziako intelektual katolikoentzat (Jacques, 1882-1973; Raïssa, 1883-1960), talde-gogoetarako topaleku gertatu baitzen Meudon-eko haien etxea<sup>31</sup>. J. **Maritain**-ek obra filosofiko gaitza burutu zuen ia lau-urogei urtetan, hil arte. Neotomismo aitortuak ez zuen ito Maritain filosofoaren modernotasun-ahalegina; aitzitik, urak astindu eta pentsamendua eraiki berritua eman zion katolikotasunari, Vatikanoko II. ean guttiz agerian ikusi ahal izan zen bezala. Transzendentziarekiko zer ikusi, zer esan eta zer bizia haren pentsamenduaren muinean izan ziren, otoitza ez ezik gogoeta eginez<sup>32</sup>. Mistikarena berariazkoa izan da Maritain-en lanetan<sup>33</sup>.

<sup>30</sup> Marcel, G., 1951, *Le Mystère de l'Être*. I. *Réflexion et Mystère*. II. *Foi et Réalité*. Paris: Aubier/Flamarion. ID., 1959. *Présence et immortalité*. Paris: Flammarion. ID., 1973, *Percées vers un ailleurs*. Paris: Fayard, 1973. Marcel, G., 2002, *Obras selectas*. Madrid: bac.

<sup>31</sup> Maritain, R., 2005, *Les Grandes Amitiés*. Paris: Parole et Silence. Jean-Luc Barré, J.-L., 1996, *Jacques et Raïssa Maritain, Les Mendicants du ciel*. Paris: Stock.

<sup>32</sup> Maritain, J., 1927, *Primauté du Spirituel*. Paris: Librairie Plon. ID., 1936, *Humanisme intégral. Problèmes temporels et spirituels d'une nouvelle chrétienté*. Paris : Fernand Aubier. ID., 1949, *La signification de l'athéisme contemporain*. Paris: Desclée de Brouwer. ID., 1953, *Approches de Dieu*, Paris: Alsatia. ID., 1963, *Dieu et la permission du mal*. Paris: Desclée de Brouwer. Maritain, J. et R., 1959, *Liturgie et contemplation*. Paris : Desclée de Brouwer. Maritain, J. et R., 1925, *De la vie d'oraison*. Paris: Parole et Silence.

<sup>33</sup> Maritain, J., 1926, “Expérience mystique et Philosophie”, in: *Revue de Philosophie*. 26, 1926, 571-618. Maritain, J. et R., 1998, *De la vie d'oraison*. Paris: Parole et Silence. Thieulloy, G. de, 2005, *Le chevalier de l'absolu. Jacques Maritain entre mystique et politique*. Paris : Gallimard. Morerod, Ch., “La mystique dans l'épistémologie de Jacques Maritain”, in : *Nova et Vetera*. 2008, 83 -2, 121-150. <http://philpapers.org/rec/MORLMD-5>. Suther, J., 1990,

Tradizio pertsonalista maritaindarrak gurean ere izan zuen tokirik<sup>34</sup>.

Guretzako zerbait hurbilagorik ere egon da. XX. mendeko lehen hamarkadetan. Migel **Unamunokoa** (1864-1936) izan genuen kristautasun birpentsatu baten bila atera zitzaiguna<sup>35</sup>. Espiritualtasunaren hau beti izan zen Unamunoren kezketako bat; erlijiotasun grina bizirik zuen bere baitan, Kierkegaard daniarraren arrastoan zebilela<sup>36</sup>, idazlan akademikoetan baino luma librez bere galdera erlijiosoak eleberri, saiakera eta olerkietan hedatzen zituela.

Unamuno kontenplari bat zela esan izan da<sup>37</sup>. “El Cristo de Velázquez” olerkitik jasotako ondoko bertso hauek adieraz dezakete zerbait:

¿En qué piensas Tú, muerto, Cristo mío?  
 ¿Por qué ese velo de cerrada noche  
 de tu abundosa cabellera negra  
 de nazareno cae sobre tu frente?  
 Miras dentro de Ti, donde está el reino  
 de Dios; dentro de Ti, donde alborea  
 el sol eterno de las almas vivas. (...).  
 Los rayos, Maestro, de tu suave lumbre  
 nos guían en la noche de este mundo

---

*Raïssa Maritain. Pilgrim. Poet. Exil.* Fordham: Fordham University.

<sup>34</sup> Beharbada, hau da aukera egokia Donostiako *Conversaciones Católicas Internacionales* haietan (1947-1959) Maritain-i buruz egon zen azpi-eztabaida ezkutua gogoratzeko.

<sup>35</sup> Unamuno, M., 2007 [1913], *Del sentimiento trágico de la vida*. Madrid: Alianza Editorial. (Euskaraz: ID., 1994, *Bizitzaren sentimendu tragikoaz*. Bilbo: Klasikoak). Unamuno, M. de, 2007 [1924], *La agonía del cristianismo*. Madrid: Alianza Editorial. 91 (“La fe pascaliana”).

<sup>36</sup> Wahl, J., 1938, “Kierkegaard et le mysticisme”, in : ID., 1938, *Études kierkegaardiennes*. Paris : Vrin.

<sup>37</sup> Blanco Aguinaga, C., 1975, *El Unamuno contemplativo*. Barcelona: Laia. Unamuno, M., 1920, *El Cristo de Velázquez*: <http://anpoto.blogs.uv.es/poesia-el-cristo-de-velazquez-de-miguel-de-unamuno/> .

ungiéndonos con la esperanza recia  
de un día eterno.

Filosofia akademikoago baten arrastoan ibili zen X. **Zubiri** donostiarra (1898-1983): Jainkoarekiko esperientziaz ari dela, badu “Dios y la vida humana: la experiencia de Dios” deritzan kapitulu bat (1983)<sup>38</sup>. Lan horren aukeraz baliatuta, Torres Queiruga teologo galziarrak Zubiriren erlijio-filosofia zorrozki aztertu digu (2005)<sup>39</sup>, eta bere kabuz “de la Filosofía a la mística” iristeko iradokizunak aurkeztu dizkigu (2013)<sup>40</sup>.

Eta ez nintzateke sosegu onean geratuko beste euskal filosofo bat aipatu gabe: Juan D. **García Bacca** (1901-1992) filosofo iruindarrak “Jainkoaz/jainkoaz” hitz egin zigun, besteak beste Sta. Teresa eta Donibane Gurutzekoa esperientzia mistikoaren lekuko gisa aurkezten zituela, oro har Filosofian bestelako bideetan zehar ibili arren <sup>41</sup>.

Garai bateko kristautasun judu-grekoak bezala, Erdi Aroak eta Filosofia modernoak gure egunak arte bizirik izan du erlijioaren eta mistikaren galdera. Esandakoarekin ez da, noski, agortzen Filosofia eta Erlijioaren arteko XX. mendeko historia, ezta Mistikarekiko erakutsi dizkiguten oharren albiste-zerrenda; baina, agian, aipatutakoek balio dute iragan mende horretan bizirik egon den saioaren seriotasuna barruntatzeko; bibliografiak irakurgai berrietarako gonbidapena izan nahi du.

<sup>38</sup> Zubiri, X., 2012, *El hombre y Dios*. Madrid: Alianza Editorial / Fundación Xavier Zubiri. 521-587.

<sup>39</sup> Mistikara iritsi gabe, Goi-agerpenaz gogoeta osagarri kritikoa da berau: Torres Queiruga, A., 2005, *Filosofía de la religión en Xavier Zubiri*. Valencia: Tiran lo Blanch. 85-99.

<sup>40</sup> Torres Queiruga, A., 2013, *Alguien así es el Dios en quien yo creo*. Madrid: Editorial Trotta. 109-151.

<sup>41</sup> García Bacca, J. D., 1986, *Qué es Dios y quién es Dios*. Barcelona: Anthropos. 45-51.

Gizakioi “falta zaigunaren kontzientziaz” idatzi du Habermas-ek, arazoimen ilustratuaren eta fede argituaren arteko harreman-elkarrizketa berriztagarria bideratzen laguntzeko<sup>42</sup>. Bide beretik doaz aurreko orrialdeak ere.

*Joseba Intxausti*

*Donostia, 2015eko uztailaren 7an*

---

<sup>42</sup> Habermas, J., 2009, “La conciencia de lo que falta”, in: Habermas, J., 2009, *Carta al Papa. Consideraciones sobre la fe*. Barcelona: Paidós. 53-77.